

Goierri tarra

333. zenbakia 2008ko urtarrilak 11

 **Goierri artxo**
Hileroko
haurren gehigarria

Zerain saritua **HERRI OSO BATEN LANA**

6119

Ile-kentzea / Solariuma / Makillajea / Manikura - Pedikura / Ezkongaiantzako bonoak / Bekain eta betileen tintea / Larruazal garbiketa / Aurpegiko tratamenduak ...

nelaitz
ESTETIKA ZENTROA

Nafarroa etorbidea, 16 Atzekaldea _ 20200 Beasain _ T 943 886 166

Alaitz Alvarez
Estetizista

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
 A. Ramirez Baigorri Dra.*

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA


ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Urte berria, asmo berriak



Iñaki Apalategi

Berriro ere urte berri bat tokatu zaigu aurrean promesak eta asmo berriak datozkigu indarrean sarri promesak ta asmo onak hutsa dira hondarrean baina guztiok erortzen gara bizio erraz, txarrean egun batean aldatu nahian egunero beharrean.

“Eztabaidatan nabilenean ez dut egingo garrasi”
“guztientzako tratu berdina, langile ala nagusi”
gizonezkoak ez dira joango plantxarengandik ihesi emakumeak dietan jarri, ta ikasleek ikasi gaurtik aurrera zer egingo du gaur arte ez denak hasi?

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Rufino Iraola.

5. Ingurugiro txokoa: Muturluzea edo Pirinear desmana.

6. Euskara txukuntzen: Udala, udaletxea...

7. Errezeta: Azelga penkak izalgo gazta eta ganbez beteta.
Aholkua: Egongela.

8. Kate motzean: Naroa Arrieta dietista.

10. Erreportajea: Andres Urdaneta eta itzulerako bidea.


15. Erreportajea: Kalitatezko Q saria zeraindarrentzat.

19. Gazteleku: Jon Barreros pilotari-gitarrajole lazkaotarra.

23. Iragarki laburrak.

24. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Rufino Iraola Garmendia

Atzendutako bertsozale baten iritzia, balio baleza

Bertso kontuan atzendu samarturik nago aspaldion. Guztiarekin ere, hitz bi egingo ditut Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa jokatu berriaren gainean. Arestian (hilabeteko epeari hala esan balekio) ospatu dute garaitza Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendik. Zorionak biei, bereziki txapeldunari, eta, oro har, parte-hartzaile guztiei; horien artean, Iker Zubeldia eta Aitor Sarriegi goierritarrei.

Neu ez nintzen han, baina etxetik bertatik «bidali» nituen behaleak, eta biek ala biek notizia bera ekarri zidaten gauean: “Saio ikusgarria izan da”. Eta batak gehitu zuen: “uste dut gaiek asko lagundu dutela horretan: egokiak eta onak ziren”.

ETBk emandako laburpen grabatua ikusi nuen nik hurrengo egunean. Espetatibak hazi samarrik hurbildu nintzen DV-Daren aurrera, eta hori ez da ona barre-neko pil-pilari eragiteko: ez ninduten bete uste adina.

Berriro ez dut ikusi eta buruz aipatuko ditut detaile batzuk. Azkenetik hasiko naiz, bertsolariak berak bezalaxe. Oso ona iruditu zitzaidan, Mendiluzeren agurra: be-roa, zabala, egokia, zuzena eta, nahi zuen guztiak jaso zezan, gonbita dotorea. Bestalde, inor gutxi ikusi izan dut puntutan Gaztelumendi eta Mendiluze final horretan aritu ziren baino hobeto. Orekatu eutsi zioten gaiari; izan ere, “bi espermatozoide zarete...” gai arrikutsua da: bertsolaria, edozein, azkar jo lezake txiste errazera lerratzeko tentazioak, eta, ondorioz, pikardia (kalte) handia egin bere bertso-lanari.

Baina ez; beste bide batetik eraman zuten haria. Bukaera geniala eman zion (uste dut Mendiluzek). “Sar gaitezen biok, bikiak nahiko dituzte eta”. Bukaera ona, ideia aldetik diot, zeren ez dut gogoan bertsoa bera hitzez hitz.

Sehaskaren gaian, harritzekoa ere ez denez, Gaztelumendi galduxeago ikusi nuen. Ez dut esango gaiari gaizki heldu zionik, baina “hilabetetan gelan egondako sehaska jasotzeko ordua heldu da” formulazioak gehiago sujeritzen zuen, nire uste apalean, Mendiluzek hartu zuen jarraibidea. Ondorioz, bertsoak tolestekoan ere andoaindarra hobeto ibili zela iritzi nion. Agian, bizitzako esperientziak ipini zituen bakoitza bere tokian.

Hirugarren, Jon Martin. Zalantzarik gabe saio ona egin zuen. Dena den, detaile pare komentatu nahi nituzke. Irazurekin jardun zuenean; alegia, “taxista eta zubi-pekkoa” gaian, Irazuk erabili zituen errima berberak erabili zituen oiartzuarrak segidan. Askoren ustez, hori meritua! Benetan hala al da? Ala «kopiatu eta erantsi»-ren tankera apur bat bat hartu zenioten? Kartzelako gaian ere, solamente, hori omen tre-bezia!, hori errimatzea, alajaina! Niri ez zitzaidan gehiegi gustatu. Ezta Maiaren kartzelako saioa ere. Hain bertso luzeak, doinu ezezagunean?, motel... Niretzat bertso luzeegiak, Maianak ez ezik beste edonorenak, ez dira bertsoak, antibertsoak baizik.

Azkenik, zortzigarren geratu arren, Iker Zubeldiaren gauza batzuk gustatu zitzaizkidan. Egia esan, alderoa erakutsi beharrean aurkitzen naiz oraingoan, erdi zal-dibitarra baita Iker, Urtsuegiko arrazakoa eta Artxanberriren sustraikoa. Jo bizi eta zartada zorrotzekoa da zegamarra. Estimatzten dut estilo hori.

Osatu dut artikulua zalantza eta kezka artean bada ere. Ez ahal nuen inor minduko! Ez dut horrelakorik desio. Nire parte gozatua eta nozitua naiz bertsolaritza eta bertsolariekin. Hemendik aurrea bakea hobe.

Zortzigarren geratu arren, Iker Zubeldiaren gauza batzuk gustatu zitzaizkidan. Jo bizi eta zartada zorrotzekoa da zegamarra. Estimatzten dut estilo hori.

IÑAKI ARIN

aseguruak



943 888 702

Oriako pasealekua, 20

BEASAIN

Muturluzea edo Pirinear desmana

Galemys pyrenaicus Geoffroy, 1811

Pirinear desmana satorren familiko ugaztun berezia da. Bisoi europearrarekin batera, tamalez biak arriskuan daudelako, gure altxorretariko bat da. Iberiar penintsulako endemismoa da. Pirinioetatik hasi eta Kantauriar mendikaterainoko ibai eta erreka garbietako animalia dugu. Baita Gredos eta Guadarrama mendikateetan ere bizi da. Gipuzkoan, Oria eta Urumea ibaietan eta Oiartzungo bailaran bizi da. Goierrin Aralar parke naturalean ere aurki dezakegu. Euskal Herrian 1996. urtean "Interes Bereziko" kategorian aipatzen zuten baina populazioaren egoera ikusirik, 2003. urtean "Desagertzeko Arriskuan" daudenen artean sailkatu zuten.

Ezaugarriak

Animalia gautar honek satorraren antza du baina bere izenak dioen bezala mutur edo sudur luzea ditu, harrapakinak bilatzeko ile sentsikorrek. Buztana ere luzeluzea eta ilerik gabekoa du. Tamaina txikikoa da, 35 cm isatsa barne. Begi txikiak ditu eta ez du belarrik. Usaimena eta dastame-



na, ukimenarekin batera oso garatuak ditu. Gorputzeko ile luzea marroixka edo gris iluna izan daiteke, sabelaldea argiago izanik. Hanketan bost behatz dauzka, azkazal sendoez horniturik eta beraien artean mintza. Hanka palmatu hauei esker ikaragarritzko erraztasuna du erreka harri-tartean moxorro bila ibiltzeko. Uretako ornogabe bentonikoetan espezializatuturik dago. Bere ohiko elikadura trikopteroak, efemeropterak eta diptereon larbak direlarik. Animalia txikia izanik, gorputzaren tenperatura mantentzeko premia metaboliko handiak ditu, horregatik beti ehizean aritu behar du. Hiru edo lau

urte bizi daiteke. Urtebete izan arte ez ditu kumeak erditzen, umaldia lau kumeak osatzen dutelarik, martxoa eta uztailen erditzen ditu.

Bestalde, bere harraparien artean igaraba, bisoi europearra eta lertxuna aipatuko ditugu.

Ugaztun hau topatu eta ikertu den toki gehienak 5 m. baino gutxiagoko erreka toak izan dira, erreken goi tartean, malda handikoak eta ur azkarrak, putzuak ere ugariak izanik. Amurrua bizi ohi da pirinear desmana bizi den uretan. Erdi tartean ere aurkitu izan dira eta tarterik baxuena Endarako erreka toa izan da, itsasotik 50 mtara. Dentsitatea 1-3 animalia kilometro izan ohi da. Hala ere, bere bizitza ohituraz asko ikasteko geratzen zaigu.

Muturluzea ur eta bazter garbiak behar ditu bizitzeko eta honegatik bioindikatzailerik bikaina da. Bere desagertpenaren arrazoiak minizentral hidroelektikoa eta bere habitaren suntsipena dira.

JAKIN BEHARREKOAK

Kanariar putrea ongi babestua. Fuerteventuran ipini diren linea elektriko berriei esker ez dira talkagatik, elektrokuziogatik edo loturagatik heriotza gehiago egon, 2007. urteko lehenengo 9 hilabetetan. Kanariar irletako putrea babesteko, LIFE zaintze egitasmoaren barruan hartu diren neurrietariko bat izan da.

Urtarrilak 26 Mobilizazio eta ekintza globalen eguna, "Neoliberalismoaren aurka, beste mundu bat posible da". Herritar eta talde ezberdinek gai honen inguruan ekintza ezberdinak antolatuko dituzte.

WEBGUNEAK

Gipuzkoako Errausketa-aren Aurkako Plataformen Koordinadorak sortu duen gunea. Errausketa sistema kritikatzeko, ez bere kokagunea. Gainera alternatibaren inguruan informazioa, albisteak eta abar ikus ditzakegu. www.errausketarikeez.org.

LIBURUA

"Conspiraciones Toxicas", ed. MR Ediciones. Kazetari taldeak egin zuen ikerketaren ondoren idatzitako liburua. Bertan azaltzen dute talde enpresariak, lobby, nola egiten duten gure osasunaren eta ingurugiroaren aurka. Gaur egungo bizimoduak dakarren arriskuen azalpena. Mugikorrak, transgenikoa, pestizida, urbanizazio berriak, ura, energi nuklearra...

"Izaki guztiak gizakiarentzat bizi direla ez da sinistu behar, izakiak bere onurarentzat ere bizi dira"

Maimonides.

Udala, udaletxea...

Maizpide
euskaltegia

Jexus, Maria eta Joxe! **Udala, udaletxea, udalbatza, udalerria...** Hitz politak bai, baina bereizten ote ditugu?

Udaletxea

Hitzaren zati bati erreparatuz gero, **etxeari buruz** ari garela konturatuko gara. Hortxe biltzen da **udalbatza** (eta herritarrek), eta alkateak bertan izaten du bulegoa. Herriko administrazio-gorabeherak bideratzeko etxea.

- ✓ *Esango al didazu, mesedez, udaletxera nola iritsi?*
- ✓ *Udaletxeko erlojua bost minutu atzeratuta dabil.*

Udala

Udalerria gobernatzeko eta kudeatzeko antolakuntza-organoa. Eta zein pertsonak osatzen dute? Bada, hauexek: **alkateak, alkateordeak, udalbatzak...** eta, **batzuetan, gobernu-batzordeak** ("junta de gobierno").

- ✓ *Lazkaoko Udalaren egitasmoak jendearen oniritzia jaso du.*

Udalerria

Lurrak, herritarrek eta antolakuntzak osatzen dute. Gaztelan "municipio" izenez ezagutzen duguna! "Término municipal" esateko ere erabiliko dugu.

- ✓ *Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien izenak ikasi ditu gure Josuk.*

Udalbatza

Alkateak eta zinegotziek osatzen dute. Alkatea udalbatzak berak aukeratzen du. Erabaki inportanteenak ere udalbatzak hartzen ditu. Gaztelan "corporación municipal" esaten dena.

- ✓ *Udalbatzaren atzoko osoko bilkuran ("plenoan") bi gai besterik ez zuten aztertu.*

Eta, bide batez, beste hauek ere azter ditzagun...

Udaltzaingoa

Udaltzainei dagokien herri-zerbitzua; edota euren egiteko-tzat udal ordena zaintzea duten pertsona-multzoa.

- ✓ *Udaltzaingoak erabakiko du zer egin bainbat urtez apaletan eduki dituzten galdutako gauzekin.*

Udaltzaina

Hiri nahiz herri-ordena zaintzeko eta udal aginduak bete-arazteko zeregina duen funtzionarioa edo aginteduna.

- ✓ *Joxe Miel udaltzainak atzo isuna jarri zidan autoa gaizki aparkatzeagatik.*

Udaltzainburua

Udaltzainen burua.

- ✓ *Joxe Miel eta gainerako udaltzainak udaltzainburuaren esanetara daude.*



Joxe Miel udaltzaina
(bizkarra emanda)

Ze aurpegi jarriko ote du udaltzainburuak On Roke apaizari kristoren isuna jarri diodala jakitean!

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Zeraingo udaletxeak eskutitza bidalio dio On Roke apaizari.
2. Donostiako Udala dotore baino dotoreagoa da.
3. UEMAn sartuta dauden udalerriak gero eta gehiago dira.
4. Udalbatzakoak, hamaiketakoak egin eta gero, elizara abiatu omen ziren.
5. Joxe Miel udaltzainak jarri zidan, bada, atzo horrela-ko isuna! Dedio!

OHARRA: lehenengoa Udalak behar du; bigarrena, udaletxea; azken hirurak zuzenak dira.

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak
Filtroak, olioak,
engrasea
Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

SUKALDEAN

Azelga penkak Idiazabal gazta eta ganbez beteta



Iker Markinez
Kuko jatetxea
Ormaiztegi

Osagaiak:

- 4 lagunentzat
- Dozena bat azelga penka zabalak
- 200 gr. Idiazabal gazta fin moztuta
- 200 gr. ganba zurituak
- Irina
- Olio
- Arrautza bat
- Gatza

Lapiko batean ura, gatz pixka batekin, irakiten jarri. Bertan azelga penkak (aurrez garbitutakoak) sartuko ditugu. Kontuan hartu garbitzerakoan limoi batekin igurtziz gero ez dutela kolore iluna hartzen. 30 minutu igaro ondoren ur hotza dugun ontzi batera pasatu, egosi puntua bere horretan gera dadin.

Penka bakoitzari Idiazabal gazta xafla finak jarri guztia estali arte, baita txukun-txukun ganbak ere. Azkenik, beste penka batekin estali. Penka guztiak osatu ondoren irin eta arrautzetatik pasa eta olio berotan frijitu.

Lagugarri bezala azelga hostoekin krema berde goxo bat egin dezakegu.

Egongela

AHOLKUA

Gaur egun egongelari garrantzi handia ematen diogu. Sarritan, etxeko lekurik nagusiena eskaintzen diogu. Erosoa eta estetikoki erakargarria izan dadin dira helburu nagusiak. Gutxi arte, telebistak asko baldintzatzen gintuen, telebistaren neurriak altzari handi bat kokatzea behartzen baigintuen. Ostera, orain, Tft telebistekin lana erraztu egin da, telebista apaingarri bezala erabil baitezakegu (hainbat dekorazio estiloean). Esate baterako, egongela moderno batean telebista horman integratu daiteke. Beste aukera apropos bat, itxura arineko telebista bat altzari polit baten gainean jartzea izan daiteke.

Inguruan, sofa eta eserita egoteko gunea diseinatu eta atontzen da. Chaise-lon-

gue izeneko sofa da gehien erabiltzen dena. Sofari lotuta dihoan pieza luzeago bat da chaise-logue, eserita edo etzanda egoteko. Halaber, sofa handiak gustuko ditugu eta hauekin egokitzen diren besaulki bakarrak, diseinu nabarmen eta presentzi handikoak jar daitezke.

Neurrira eginiko alfombra edo tapiz pertsonaltuetue ere egongelari erosotasuna eman eta sentzazio atseginak eragiten dizkigute. Alfombra handiek babesa eta goxotasuna ematen digute.

Arestian esan bezala, egongelari metro asko ematen dizkiogu eta gune horretan bertan beste txoko edo giro bat ere sor dezakegu. Gune hori modu egokian prestatzeko asmo bat baino gehiago izan dezake-

gu: mahai bat eta aulkiak kokatzea, musika entzuteko lekua topatzea, ordenagailua jartzeko espaziorik onena izatea edota norberak une horretan dituen beharrei erantzuteko lekua moldatzea. Mahaia eta aulkiak jartzea erabaki badugu, adibidez, mahaiaren gainean, erdian lanpara jarritz zeharo asmatuko dugu.

Oro har, giro bat sortzeko, norberaren gogo eta nahiekin zerikusi handi du. Norberaren bizitzeko modua islatzen eta proiektatzen saiatzen gara. Estetikak, argiztapenak, testura edo materialen aukerak ere zer esan asko du hor (larua, oihala, hormetako papera, altzari lakatuak, lanpara ikusgarriak...). Guzti horrekin gure nahietako egongela izango dugu



Nekane Eskisabel
Atari dekorazioa
Lazkao

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak



“Gehiegikerien ondoren barazki, fruta, zereal eta lekaleak ezinbestekoak izango dira”

Gabonetako gehiegikerien ondorengo errezeta:

Egunerokotasunari helduz elikadura orekatua egin eta errezeta majikoetan ez pentsatzea.

Urte Berriarekin batera kiloak jaitsi behar dituela esaten duenari zer esango zenioke?

Era egoki batean jaisteko, dieta orekatu eta egokitua eginez eta jarduera fisikoa ezarriz.

Elikadura osasungarriaren ardatza:

Denetik jan plater txiki batean.

Kalterik handiena eragiten duena...

Egun berezi hauetan orotdu bakar batean jaten eta edaten den guzti horren ondoren gorputza gelditu mantentzea.

Gure eguneroko otorduetan falta ezin dena...

Gehiegikerien ondorean barazki, fruta, zereal eta lekaleak ezinbestekoak izango dira.

Haurrei zein aholku emango zenieke?

Helduei bezala, dieta orekatua egin eta ahal duten gehiena jolastu edota mugitu.

Elikaduraz gain, bizitza osasungarriaren bigarren ardatza, kirola da. Egunean, gutxienez, zer egin beharko genuke?

Norberaren ohituren arabera hasi beharra dago, oinez ibili edota kirol aerobiko bat praktikatzea da gomendagarriena.

Amatasuna, lana eta kirola uztartzeko sekretua:

Egiten denarekin ahal den gehiena gozatzea.

Zerk sortzen dizu negarra?

Gaur egun oraindik ere janari eta botika faltak munduan eragiten dituen heriotzak.

Eta barrea?

Ume baten irriparrak.

Edari bat:

Ura.

Janari bat:

Entsalada eta ogia.

Oporretarako leku bat:

Donostia, nola ez.

Kirol bat:


Triatloia.

Zaletasun bat:

Zinea dut gustoko.

Amets bat:

Ilusioa ez galtzea.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara

Igandeetan itxita

Eguerdietan ostegunetik
larunbatera bakarrik

☎ 943 65 28 37

IKAZTEGIETA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, astelehena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteazkenean zehar eguerditan enkarguz)

☎ 943 80 17 57

ZERAIN

aulia



TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

LEGORRETA

Olagi

Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik

Eguneroko menua

Karta

Sagardotegiko
meua



☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

AMEBI



Sagardotegia

LARUNBATA 12

GAUEAN TXOTX

DENBORALDIA

IREKIKO DUGU

TRIKITILARIEKIN

SARRERA DOAN

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9 **LAZKAO**

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ 943 65 21 76

ABALTZISKETA

TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ 943 88 11 28

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA


Egunero
zabalik



Zatoz lagunarteko
giroz gozatzera!

☎ 943 18 01 19

ATAUN



ETXE-ZYRI

SAGARDOTEGIA - JATETXEA

☎ 943 88 20 49

OLABERRIA



Andres Urdaneta eta itzulerako bidea

*José Ramón
de Miguel Bosch*

Urdanetaren Urtea da aurtengoa Ordizian, Andres Urdaneta itsas-gizona jaio zeneko V. mendeurrena ospatuko baitute. Ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte Ordizian. Hurrengo orriotan, Andres Urdanetaren biografia jaso dugu, Jose Ramon de Miguelek egina, ordiziar unibertsala gerturatzeko, ezagutzeko.




ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48



Sanperio
kalea
ORDIZIA

okindegia-kafetegia

Ogi berria
egun guztian
zehar

Bertako produktu naturalak:
urdai azpikoa, saltxitxoia...
jogurtak, esnea...

Baserriko
produktuekin
egindako
gosariak



José Ramón de Miguel Bosch

José Ramón de Miguel Bosch, merkataritza-itsasketako kapitaina eta "Urdaneta en su tiempo" liburuaren egilea. Testu hau www.euskonews.com Euskonews argitalpenaren 211. zenbakian (2003 / 05 / 23-30) argitaratu zen eta egilearen baimenarekin berreskuratu dugu.

Andres Urdaneta Ordizian jaio zen 1507. urtearen bukaeran edo 1508. urtearen hasieran, haren biografo zaharrenek hamar urte zaharagoa dela esaten badute ere. Dena den, Urdanetak berak argitzen du zalantza, 52 urtetik gora dituela esaten baitu 1560ko maiatzaren 28an erregeari idatzitako gutunean: "y dado que según mi edad que pasa de 52 años".

Andres Urdanetaren gurasoak, Juan Otxoa Urdaneta eta Gracia Zerain, Goierriko burgesak ziren. Aita Ordiziako alkate izan zen 1511n, eta amaren familiak burdinolen sektorearekin zerikusi omen zuen, Velascoren esanetan, Legazpiren ahaide zelako eta Urdane-

tak Andres Mirandaola iloba zuelako. Urdanetaren etxea Oianguen baserria dela esan ohi den arren, badiurdi hiriguneko etxe batean jaio zela, izan ere, Isastik dio bazela 'Urdaneta' izeneko etxe bat 1625ean.

Urdanetak jasotako he-

ziketari buruz ez dakigu ezer, baina emaitzak ikusita, ona behar zuen, batez ere zientzia zehatzetan. Lehen aldiz 17 urterekin ontziratutazenean, idazkera zainduarekin eta erraztasun handiz idazten zuen. Haren idazlanek, gainera, behaketa-do-

Urdanetak jasotako heziketari buruz ez dakigu ezer, baina emaitzak ikusita, ona behar zuen, batez ere zientzia zehatzetan. Lehen aldiz 17 urterekin ontziratutazenean, idazkera zainduarekin eta erraztasun handiz idazten zuen.

hain apartak eta oroimen bikaina erakusten dituzte.

Urdaneta elebiduna zen: gaztelaniaz idazten zuen euskaraz pentsatzen zuena. Ondoko hizkuntza erromanioken lexikoz betetako gaztelaniazko idazlanak, batzuetan, zailak dira ulertzten euskarara jo gabe, euskararen joskera sintaktikoak eta lokuzioak erabiltzen zituen eta.

Lehenengo bidaia

Urdaneta 1525ean itsasoratu zen estreinakoz, balio ekonomiko handia zuten Moluka irlak menperatu nahian Gaztelak eta Portugalak zuten lehia zela-eta Carlos V.ak Espezieriara (Molukak) bidalitako Loaysaren espedizioan. Elkano zen espedizioaren arduraduna eta "Sancti Spiritus" itsasontzia gobernatzeko zuzen zela eta zehaztu gabeko ardurako kargu batekin ontziratutazenean Urdaneta bertan.

Urdanetaren adina zela-eta itsasmutil edo morroi gisa ontziratutazela uste izan bada ere, ez zuen halako zereginik bete: esaterako, Elkanoren testamenduan lekuko gisa sinatu zuen, berehala hartu zituen bere gain hainbat erantzukizun eta behin baino gehiagotan kritikatu zuen arrazoiarekin bere egunkarian bere nagusi zuzenaren ontzia kudeatzeko modua.

7 ontzitik 6 galdu

7 ontziz osatutako espedizioa 1525eko uztailaren 24an abiatu zen A Coruña-tik. Magallaesko itsasartean gorabehera larriak izan eta hainbat arrazoiengatik 6 ontzi galdu zituen. Horrez gain, ia buruzagi guztiak hil



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



Etxe-Alai etxea | C.P.: 20269 | Abaltzisketa | Gipuzkoa
Tel.: 943 65 34 93 / 943 65 44 11 | Mug.: 608 17 77 75
Fax: 943 24 00 52 | zubara@terra.es

ziren gaixotasunak jota. Mindanaora iritsi zen ontzi bakar batekin 1526ko urriaren 6an. Ondoren Moluketara abiatu ziren.

Irla haietan egon zen 9 urtez, Urdanetak diploma-zialari, estratega eta behatzaile dohainak erakutsi zituen. Hortxe eskuratu zituen 1565eko itzulerako bidaiarako erabakigarriak izango ziren bertako nabigazioaren eta klimaren inguruko ezaupideak, Amerikara Pazifikotik itzultzeko saiakeran porrot egin eta Asiako nabigatzaileekin harremanak izan ondoren.

Lisboan agiriak konfiskatu

1528ko apirilaren 22an, Carlos V.ak Portugal saldu zizkion Molukengan zituen eskubideak; hori jakitean, urte batzuk beranduago, han geratzen ziren gaztelauek negoziatu egin zuten itzulera portugaldarrekin. Urdaneta 1535eko otsailaren 15ean abiatu eta 1536ko ekainaren 26an heldu zen Lisboara. Lisboa zapaldu bezain laster, portugaldarrek konfiskatu egin zizkion zeramatzan agiri guztiak, alegia, Loaysa eta Saavedraren bidaien bideak, mapak eta beste memoria eta idazki batzuk: "otras memorias y escripturas, lo cual tomo la dicha Guarda Mayor sin auto de escribano, ni nada, sino así de hecho".

Espainiako Enbajadorearen aginduz Portugaletik alde egin ondoren, buruz egindako bidaiaren kontakizun bat entregatu zuen Valladoliden 1537ko otsailaren 26an. Kontakizun honek ederki islatzen ditu Urdanetaren behaketa-dohainak, irlen ezagutza sakona eta haien etekinekiko interesa.

Garai hartan Pedro Alvaradok eskatu zion Espainia Berritik abiatuko zen espedizio berri batean laguntzeko. Horretarako, Sevillan



1553ko martxoaren 20an, Urdaneta elite indigenen heziketan oso inplikaturata zeuden agustindarren ordenan sartu zen.

itsasoratu ziren 1538ko urriaren 16an, baina Mexikora iristerakoan, eten egin zen Alvaradoren eta Mendoza erregeordearen arteko harreman kaskarren ondorioz. Alvaradoren heriotzak Villalobosen esku utzi zuen espedizio hau, eta honek berriz huts egingo zuen itzulerako bidaiaren saiakeran.

Mexikon

Urdaneta Mexikon geratu zen ardura handiko zereginetan, hala nola, 1542an Cabrillok Kaliforniako kostaldera egindako espedizio-

aren porrota ikertzen. Garai honetan kontakizun bat idatzi zuen, Karibetik barrena egindako nabigazioari, zirkloi tropikalei, dortoken ugalketari edo sukar tropikalei buruzkoa. 1547an Peru baketzeko armada bat antolatzeko eskatu zioten, baina Lagascaren arrakastak bertan behera utzi zuen espedizioa.

1553ko martxoaren 20an Urdaneta elite indigenen heziketan oso inplikaturata zeuden agustindarren ordenan sartu zen. Ez dakigu asko bere jarduera erlijiosoari buruz, baina badakigu ez

zituela ur-jarduerak baztertu, izan ere, Tristán de Lunak eta Arellanok 1559an Pensacolarako egindako arrakastarik gabeko espedizioan hartu zuen parte eta harreman estuak izan zituen gerora konkistatzaile izango zen Pedro Menéndez de Avilésekin.

1559ko irailaren 24an, Felipe II.ak Luis de Velasco erregeordeari agindu zion Filipinetara espedizio bat bidaltzeko Urdanetarekin, aditutzat jotzen baitzuten egonkortu nahi zuten bide horretan. Kontraesanak daude espedizioaren helmugaren inguruan. Alabaina, dokumentazioari erreparatuz gero, badirudi portugaldarren mesfidantza ez pizteko egindako azpajoko baten ondorio direla aipaturako kontraesanak.


Felipe II.ak bazekien jakitera eman baitzioten Tordesillasko Itunaren arabera Filipinak Portugalen mugapean zeudela, baina bazekien ere Filipinetan ez zegoela portugaldarrik.

Filipinak menperatzeko eta Txinarekin merkataritzazubi bat finkatzeko, beharrezkoa zen, ordea, itzulera bide bat aurkitzea Pazifikotik Espainia Berriraino. Aurreko itzulerako bidaien bost saiakerek kale egin zuten eta Urdaneta zen erronka hura konpon zezakeen bakarra.

Legazpi espedizio lagun

Espedizioa, Legazpi buru zuela, 1564ko azaroaren 21ean abiatu zen Espainia Berriko La Navidad portutik. Urdanetak proposaturako hiru alternatibetatik bat jarraituta, biderik ekuatorialenean barrena nabigatu zuen. Bide hau aski ezaguna zen, Saavedrak eta Villalobosek dagoeneko erabili baitzuten joateko.

Urdanetak ondo baino hobeto erakutsi zuen bere kalkuluak zehatzak zirela eta Pazifikoa ondo ezagutzen zuela. 1565eko urtarri-



Itzulerako bidea

1565ean Filipinetatik Mexikora egindako itzulera gertaera garrantzitsua izan zen nabigazioaren historian. Ordua arte egindako bidaiarik luzeena zen; 7.644 milia nabigatu zituzten bide ezezagun batetik.

Bidaia garrantzitsu hau 18 urteko mutil baten aginduaren eta 57 urteko fraide baten zuzendaritza teknikoaren menpe egin zen. Lehen, Legazpiren iloba Felipe Salcedo zen eta bigarrena, Urdaneta. Azken honek ematen zuen konfiantzak soilik azaldu dezake beste edozein egoeratan ausarkeria suizida hutsa izango zena.

San Pedro ontzia Cebú-tik abiatu zen 1565eko ekainaren 1ean, Ozeano Bareaz haraindiko nabigazio bera 9an, San Bernardino itsasartetik ateratzen, hasi zen arren.

Udako montzoiak bultzatuta, abuztuaren 14ra arte ipar-ekialdera nabigatu zuten Acapulcoraino eramango zituen Kuro-Shivo korronea bilatuz; egun hartan lehen aldiz lortu zuten 39°ko ipar-latitua 170°ko mendebal-longituden. Ondoren,

32° Nra jaitsi, eta 39° 30' Nra igo ziren berriz ere irailaren 4an. Nabigazioa 'alferrik' luzatzen zuten bi 'mutur' horiek ere ez ziren ezustekoak izan: Urdanetak egiaztatu egin nahi zuen longitudea, garai hartan koordinatu menderaezina baitzen baina Pazifikoa zeharka gurutzatzeko ezinbestekoa.

Kalkulu zuzenak

Bere kalkuluarekin bete-betean asmatu zuen, izan ere, Espinosa pilotuak, kontinente amerikarrera zegoen distantzia balioestean, bere egunkarian idatzi zuen Urdanetaren ustez egungo Mendozako Lurmuturretik 270 legoara zeudela. Distantzia hau 15 egun nabigatu eta gero egiaztatu zen. Kalkuluaren bidez soilik nabigatuz, 7000 miliaren ondoren ezinezkoa izango litzateke horrelako zehaztasuna lortzea.

Irailaren 18an Kaliforniako Santa Rosa uhartea begiztatu zuten, eta honenbestez amaitzen zuten Pazifikoa mendebaldetik ekialdera zeharkatuz egindako lehen bidaia. Eskifaia akittuta zegoen, baina jateko eta edateko

premia handirik gabe. Egun hartatik aurrera, azkar jaitsi ziren kostaldetik Urdanetak hautatutako herriraino: Acapulcoraino, hain zuzen ere. Urriaren 8an porturatu ziren.

Itsas bide nagusia

Urdanetaren ezintasunaren mito zabaldua desegin ez ezik, itzulerako bidaia azkarra eta ezbeharrik gabekoa ere izan zen, inprobisaziorik gabekoa. Bidaia horren emaitza zuzenek 1815. urtean Manilatik azken galeoia itsasoratu zen arte iraun zuten; emaitza ez zuzena, berriz, beste honako hau da: bide hori mundu modernoaren itsas bide nagusienetako bat da egun.

España Berrira itzuli eta Audientziaren aurrean aitortu ondoren, Urdaneta Gaztelara joan zen Felipe II.ari kontuak emateko.

Behin Gaztelan, gure gizonak Tor-desillasko Itunaren baldintzetan oinarritutako irlen jabetzari buruzko "Parecer del P. Andrés de Urdaneta" agiria idatzi zuen 1566ko urriaren 8an.

Izapide hau bete eta Indietako Kontseiluaren baimena eskuratu ondoren, Mexikoko San Agustin komentura itzuli eta 1568ko ekainaren 3an hil zen.



Filipinak
menperatzeko eta
Txinatekin merkataritza-
zubi bat finkatzeko,
beharrezkoa zen, ordea,
itzulerako bidea bat
aurkitzea Pazifikotik
Espainia Berriraino.

laren 21ean Guam irla gertu zutela ohartarazi eta bihar-munean begiztatu zuten; espedizioaren pilotuek jada Filipinetan zeudela uste zuten; otsailaren 13ra arte, ordea, ez zuten bertara iristerik lortu.

Behin Filipinetan, bertako artxipelagoaren hainbat irla esploratu zituzten behin

betiko kokaleku baten bila. 1565eko martxoaren 15ean, esplorazioekin jarraitzen zuten bitartean, Bohol-en ainguratu zuten, Itzulerako bidaia egiteko erabiliko zuten San Pedro ontzia konpontzeko zur asko baitzegoen bertan.

Horretarako bidalitako fragataren aldeko txostenek

eraman zuten Legazpi Cebú behin betiko kokaleku gisa aukeratzera konkista hasi behar zuten espedizionario-entzako. Ontzidia apirilaren 27an joan zen hara eta, hizkuntza ezaupideak zituenez, Urdaneta izan zen lehena ontzitik jaisten bertakoekin negoziatzeko (dirudienez, Asiako hego-ekial-

deko zati handi batean harreman-hizkuntza zen malaysieraz hitz egiten zuen eta tokiko zenbait hizkuntza ere ezagutzen zituen).

Filipinetan behin betiko kokalekua finkatu ondoren, Espainia Berriarekin lotuko zuen bide egonkorra aurkitzea besterik ez zen gertatzen.

Andres Urdaneta jaio zeneko V. mendeurrena ospatzeko egitaraua

Ordiziako Udalak, hainbat erakunderekin lankidetzan, Andres Urdaneta jaio zeneko V. mendeurrena ospatzeko egitarau zabala prestatu du. Era askotako ekintzak izango dira, izaera zientifikokoak eta jolas eta kulturakoak. Interneteko ataria ere sortu dute. Jose Ramon de Miguelek egindako 'Urdaneta en su tiempo' liburuaren edizio berri eta zabalagoa egin du. Andres Urdanetaren figuraren gaineko erakusketa eta Urdanetaren gaineko feria eta jaialdi monografikoak. Jarraian, egitarauaren xehetasunak:

Maiatza bitartean:

- 'Andres de Urdaneta 1508-2008' erakusketa, Barrenan.

Urtarrilak 17, osteguna:

- Hitzaldia: 'Rumores de ultramar. Los vascos y la emigración a América, una historia desconocida', Oscar Alvarez Gilaren eskutik, Barrenan.

Otsailak 21, osteguna:

- Hitzaldia: 'Urdaneta, XVI. mendeko euskal itsas zabalkundearen adibide',

Xabier Alberdi Lonbide historiagilearen eskutik, Barrenan.

Martxoan:


- Jose Ramon de Miguel Boschen 'Andres de Urdaneta en su tiempo' liburuaren aurkezpena, Barrenan.
- Hitzaldia: 'La construcción naval en Guipúzcoa. Siglo XVI', Lourdes Odriozolaren eskutik, Barrenan.

Apirilan:

- Andres Urdanetaren gaineko dokumentalaren aurkezpena, Barrenan.
- Hitzaldia: 'Los conocimientos náuticos en la época de Urdaneta', Jose Ramon de Miguelen eskutik, Barrenan.

Maiatzan:

- Hitzaldia: 'Urdaneta y los pioneros vascos en Filipinas: su contribución a la formación de la nación filipina', Marciano de Borja Ramosek, Barrenan.
- Erdi Aroko Feria eta Espezien Feria.
- 'Del bosque al mar' erakusketa, Albalak osatua.



tua.

Ekainan:

- 'Andres de Urdaneta 1508-2008' erakusketa, Donostiako Boulevardeko Kutxako aretoan.

Uztailan:

- 'Andres Urdaneta' jardunaldiak, Euskal Herriko

Unibertsitateko Udako ikastaroetan.

Abuztuan:

- 'Andres Urdaneta 1508-2008' erakusketa Bartzelonako Asia etxean.

Irailan:

- 'Andres Urdaneta' jardunaldiak Ordizian. Donostiako Musika hamabostaldian.
- 'Andres Urdaneta 1508-2008' erakusketa Madrilgo Asia etxean.

Urrian:

- Artisaualdia, artisautza feria. Filatelia erakusketa.

Azaroan:

- Barroko Aire. Musika Barroko egunak.
- 'Andres Urdaneta: un hombre moderno', nazioarteko kongresua Ordizian.



Iñasti
Hortz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

©-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA

AUSO EGI

ERREFORMAK

- ✖ Tximini eta ekonomiak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak

Kalitatezko Q ziurtagiria zeraindarrentzat

Herri oso baten lanari saria



Zeraingo Turismo Bulegoak, kalitatezko Q ziurtagiria jaso zuen joan zen abenduan. Duela bederatzi urtetik, herritarrek sortu zuten Aldabe elkarteak kudeatzen du. Sari hau, Zerainek

duela 14 urte baino gehiago, herri garapenean hartu zuen biderei emandako saria da, Jose Manuel Oria alkateak eta Aitziber Makazaga Aldabeko elkarteko kideak adierazi dutenez.



Oihalak
Haurdunaldiko arropa

Oriamendi 27 BEASAIN



xetai
nafarroa etorbidea 1
20200 beasain gipuzkoa
www.xetai.net



24.000 bisitari

Azken urteotan, bisitari ugari etortzen da Zeraina. Kopuru zehatz bat ematea zaila bada ere, Turismo Bulegotik emandako datuen arabera, urtean, 22.000 sarrera saltzen dira. “Baina kontuan hartu behar dugu, museora joan gabe ere jendea herrian izan dela. Iaz adibidez, 24.000 bat izango zirela kalkulatu dugu. Oso zaila da datu zehatz bat ematea”.

Jatorri eta adin ezberdinetako jendea etortzen da. Ikasleak asko, eta oso gogoko dituzte gainera, “normalean gero, gurasoekin etorriko baitira. Azkenean eragin bikoitza edukitzen du. Bezero fijo bat egin dugu. Ikastetxe batzuk beti etortzen dira eta horrek erakusten digu nondik jo. Ahoz ahoko publizitatea izaten da onena. Jubilatutako ere asko etortzen dira”.

Esperientziarekin ikasten joan dira Aldabe elkarteak. “Mailing bat egiteak, eta noiz egiteak, zein garrantzia daukan... alde horretatik ikasi egiten da. Gu kalitate sistemeekin aspaldi hasita geunden lanean, ziurtagiria jasotzea ondo dago, baina ziurtagiri horrek guretzat, harraminta bat izan behar du hemendik aurrera nola lan egin behar dugun ikusteko. Bere helburua da, momentuero, hobetzea. Inkestak adibidez, oso baliagarriak dira guretzako. Jendeak eskatzen du gutxienean kalitatea. Turismoari lotutako gauza asko daude gaur egun eta jendea esperientzia berri baten bila dator. Zerbait berria eskaini behar duzu. Talde bakoitzari egokitzen jakin behar da. Hasieratik hona, aldaketa asko egin izan ditugu eta aldatzen jarraitu beharko da”, zehaztu du Makazagak.

tik zer zegoen ikusten zen. Baserri aldapatsuak, lursail txikiak, sakabanatuak... Jende guztia industriara joan zen eta inguruko herrietara joan zen bizitzera: Beasaina, Idiazabala... Herri bilerak egiten hasi ziren gazte talde bat. Etxebizitza ez zegoen eta inguruko herrietara jende asko joan zen. 1975ean 24 etxebizitza egin ziren eta ordutik hasi zen, herriak herri izaten jarraitu nahi bazuen zerbait egin beharra zegoela ikusten. Eta zer egin? Baserritik ez zegoen etorkizunik eta herrian nolabaiteko bizirik ere ez zegoen. Ondare pixka bat zegoela ikusten genuen herriak. Kartzela, Larraondoko zerrategia, San Blas ermita... horiek berriro sortzeko nahia sortu zen. Pixkanaka-pixkanaka hasi ginen. Lehenengo ekintza, kartzela berriro izango zen; gero zerrategia, San Blas ermita...”, laburbildu du Jose Manuel Oriak.

Zaharkinak eta museoa

Zeraindarrek egin zuten hurrengo ekintza, Zaharkinak erakusketa antolatzea izan zen. Auzolanean egin zuten. “Zaharkinak erakusketaren haritik sortu zen museoa 1994an. Herriko gazte talde bat baserri batera joan zen, inbentario bat egiten. Pilotalekuan egin zen Zaharkinak erakusketak izan zuen arrakastaren ondorenean, museoa sortzea erabaki zen”, zehaztu dute.

Zeraingo alkateak azpimarratu nahi izan duenez, garrantzia handiko ekintza izan zen hura. “Zaharkinekin lortu zen etxeetan sarre- ra uztea eta daukatena erakustea, herritarrak lantzen

Zeraindarrek herriari bizirik eusteko egindako apustuak eta hartutako bideak, saria jaso zuen 2007 urte bukatzean. Zerain Parke Kul-

turala indartsu dago. Jose Manuel Oria alkateak eta Aitziber Makazaga, Aldabe elkarteak kideak azken urteetako Zerainen garapena-

ren berri eman digute.

“Herriari bizirik eusteko filosofia 1972. urte inguruan sortu zen. Nekazal herria izan da Zerain. Nekazaritza-

ZEGAMA
OKINDEGIA
Eskuz egindako
ogi naturala

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretxue:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

☎ 943 80 10 66 Intxausti eremua, 14G-14H nabeak **ZEGAMA**

ari garen proiektu horren parte aktibo bat izatea eta hori oso-oso garrantzitsua da”.


Informazio bulegoa

Zerain aitzindari izan da gauza askotan eta aitzindaria izan zen eskualdean, turismo bulegoa zabaltzen. “Kartzela, zerrategia, ermita, museoa... jendeak ikusteko moduan jarri genituen baina arazoa zen jendea etortzen zen garaian norbaitek atenditu behar zuela, eta horrek errentagarri izan behar zuen. Horren inguruan, informazio bulegoa sortu zen, asko kostata. Momentu hartan Zeraina zetorren jendearekin bakarrik ezin zen lanpostu bat sortu. Beraz taberna, informazio gunearekin batera, dendatxo bat ere ireki genuen, oinarritzko gauzak erosi ahal izateko. Talde batek kudeatu zuen guztia, lehenengo pare bat urtean. Oso lan ona egin zuten”.

Harrezkero euri ugari egin du eta urrats handiak eman ditu Turismo Bulegoak. Q ziurtagiriari begira, kalitatearen aldeko apustua egin du. “Zerbitzua kalitatezkoa izatea eta beti hobetzen saiatzea da helburua”, dio Makazagak. “Onak izanda bakarrik ezin dugu aurrera egin, oso onak izan behar dugu”, gaineratu du Oriak.

Herriko zerbitzu ezberdinen arteko harremana sortu da kalitatearen ikurra lortzeko bidean. “Guk argi zera daukagu: turismo bulegoak kalitatea landu behar du, baina aldi berean, baita herriko beste zerbitzuek ere. Eta aitzakia horrekin, noizean behin bildu eta elkarrekin lan egitea bilatzen da. Azken batean, saria baino garrantzitsuagoa da, lanerako metodologia bat ikasi eta praktikan jartzea”, azpimarratu du Makazagak.

Saria dena den, herri osoarena dela diote. “Lortu berria dugun ziurtagiri ho-



Turismoari lotutako gauza asko daude gaur egun eta jendea esperientzia berri baten bila dator. Zerbait berria eskaini behar duzu.

rrekin, nolabait seilatu digute, hartu genuen bidea, nahiko bide zuzena izan dela. Herriko jendeak proiektuan sinisten du. Bere garaian hartu zen bidea arrakasta edukitzen ari da”, ziurtatu dute.

Zerainen auzolanean lan asko egin izan dira, baina Jose Manuel Oriak, auzolan berezi bati ematen dio garrantziarik handiena: “auzolanean lan asko egin dira baina auzolanaren lan garrantzitsuena Zerainen, herritarren artean, herriko proiektua geurea sentiaraztea da. Auzolan bezala, emaitzarik onena ematen ari dena, horixe da. Herritar gehienok, momentu batean, arrazoi batengatik edo bestearengatik, hartu zen bide hura, bide egokia dela uste dugu, geuk hartutakoa eta geure proiektua dela sinisten duena. Auzolanak eman duen fruiturik onena horixe da. Edozein ekintzatarako deialdia eginda, 50-60 lagun biltzen gara. Horrek zerbait esan nahi du”, zehaztu dute.

Adibide bezala, udalak deitutako azken bilerako datua eman dute. “Aurreko batean bilera baterako deia egin genuen udaletxetik, zertan ari ginen eta zein asmo genituen azaltzeko. 80

lagun bildu ginen, etxe ba-koitzetik bakarren bat egongo zen”.

Zeraindarrak bertakoak eta Zeraina etorri direnak. “Kanpotik ere jendea etorri da, eta nik uste dut, jende horren behar handia daukagula, adibidez, herriko eskolari eusteko. Eskolari eutsi beharrean gaude eta horretarako gutxieneko haur koporu bat behar dugu. Eta eskola ezinbestekoa dugu. Herrian eskolarik egon ez den garaiko gazteek ez dute bizirik egiten Zerainen”.

Herria aurrera

Herriak aurrera egin dezan, proiektu ugari dituzte zeraindarrek eskuartean. Gazteak herrian gelditu eta etorkizuna ziurtatze aldera, Udalaren lurretan, etxebizitzak egiteko asmoa dauka Udalak.

Ondarea berreskuratze-arekin jarraituz, Aizpeako meategietan harrera gunea prestatzen ari dira. “Berrikuntza izango da Zeraingo turismo eskaintzan: Aizpeako meategia. Industria turismoa modan dago gainera. Meategiak ikustera, eskaintzarik egin gabe ere, jende asko etortzen da; zerbait baldin badago oraindik, jende gehiago izango da”, zehaztu dute. Aste Santua baino lehen, otsailaren erdirako, harrera bulegoa irekita egotea aurreiskuten dute zeraindarrek.

Aurreragoko asmoekin jarraituz, meategiko galeriaren bat irekitzeko aukera aztertzen ari dira; tren jartzea ere bai. Jose Manuel Oriak aipatu duenez, helburua, Zeraingo plazatik Aizpeako meategiraino, tren jartzea litzateke.



Jose Manuel Oria eta Aitziber Makazaga.

“Zerain erreferentzia izan da”

1994an, turismoari buruz hitz egiten hasi zinetenean, nola ikusten zen turismoa garai hartan?

Jose Manuel Oria: Nik uste dut garai hartan ez genuela planteatu turismora dedikatu behar ginela, baizik eta, geneuzkan baliabideak lantzen hasi ginen. Gure ondarea txukundu eta hori saltzen.

Aitziber Makazaga: Hori saldu behar genuela esatea bakarrik... askorentzat, erotuta geunden. Garai hartan turismoa kostaldekoa zen, ez zen barrualdekoa.

Oria: Herriaren egoera asko aldatu da. Bi taberna, bi sagardotegi, bi nekazalturismo, dena, aterpetxea ditugu.

Makazaga: Gaur egun Aldabe elkartearen, 6 lagun egun osoz ari gara eta beste 5 asteburuetan eta oporretan. Aldabek bere aldaketak eman ditu eta gaur egun, Zegama, Segura eta Idiazabalgo Interpretazio Zentroak ere kudeatzen ditu.

Oria: Udalak ere inbertsio handia egin du, Jakoba Rekondo hemen izan baitu teknikari bezala. Informazioa lortzeko oso garrantzitsua izan da. Dirulaguntzari buruzko informaziorik ez badaukazu, galdu egiten da eta oso garrantzitsua da horretako pertsona bat edukitzea. Kasu horretan, Jakoba Errekondo. Paisajista izanik gainera, herriaren itxuran ere parte hartu du. Inbertsio ona izan da. Orain bajan dago eta bere falta ondo somatzen dugu.

Eskualdeari zein onura ekarri dio Zerainek?

Oria: Gu ez gara egokienak esateko eskualdeari zer ekarri dion. Zeraina datorren jendeak ez du Zerain bakarrik bisitatzen, eskualdeko beste hainbat leku ere bai.

Makazaga: Azkeneko urteetan turismoan lan asko egin da. Azkenean, Goierriko turismoaren parte denok gara. Zerain bakarrik, Bartzelonan ez da ezer. Goierri beharbada bai.

Oria: Eskualdeari bakarrik ez, nik uste dut Gipuzkoari, eta Euskal Herriari ere bai. Zerainen irekitzen hasi ginen bide hau jende askorentzat erudia izan da. Zerain erreferentzia izan da beti.



kutxa



Jon Barreros pilotari- gitarrajole lazkaotarra

Enpresaritzea ikasketak egiten ari da Jon Barreros lazkaotarra. Dena den, bere bi zaletasunei leku egiten die oraindik ere: pilotari eta gitarrari. 2007a

urtea gainera, urte berezia izan da lazkaotarrarentzat: Drindots taldearekin abesteko aukera izan baitu bi kontzertutan.



Monika
Argazkilaria *Sanchez*
www.monikefoto.com

2008an ezkontzen baldin
bazara eskatu aurrekontua,
inongo konpromisurik gabe.

Tfno.: 637791433

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

**Mota guztietako
gida-baimenak**

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:
Gai eta maila guztiak

INFORMATIKA:
Mekanografia, Word...

INGELERA:
Haurrak, gazteak, helduak

IKASKETA TEKNIKAK, TAILERRAK

UNIBERTSITATE MAILA:
Enpresaritzea, Injeniaritzea

Joan Iturralde, 5, Beasain
943 160 120
www.ikaskide.net

Zazpi urte zituenetik, pilota eta gitarra, Jon Barrerosen bizitzaren zati dira. Pilota eta gitarra, gitarra eta pilota, bien beharra dauka 19 urteko lazkaotarrak. Aurretik baloia ere izan zuen lagun, baina Unibertsitateko ikasketak zirela eta, futbola utzi eta pilotaren aldeko apustua egin zuen, gazte gehienek alderantzizkoa egiten badute ere. “Erabaki gogorra izan zen baina pilota gehiago gustatzen zait”, kontatu digu Jon Barrerosek.

Pilotak gehiago betetzen omen du lazkaotarra. Ondo gogoan du, txikitan, ahal zuenetan, pilotan jokatzen zuela, Lazkaoko pilotalekuan. “Txikitan, egunero jokatzen nuen pilotan. Eskolara joan aurretik, lehentxeago joan eta pilotan aritzen nintzen; bazkaltzera joan aurretik; eguerdian ere bai; arratsaldean ere bai... asteburuetan ere bai... Asteburuetan Lazkaomendira joaten ginen, aitarekin pilota partidua jokatu eta gero Itxurrenen pintxoak jan”. Bai lehen eta bai orain, gurasoak ditu jarraitzailerik sutsuenak.

Gaur egun, senior mailan ari da, bigarren urtean. “Adin guztietako jendea aritzen da, geroz eta gorago, geroz eta zailago”.

Beti esku pilotan aritu izan da, batez ere binaka. “Urtean behin, Itziarren eta Elgetan, 4 1/2koa jokatzen



dugu, baina gu gehienbat binaka jokatzeke prestatzen gara”.

Herriko San Migel txapelketan txapel bat baino gehiago jantzitakoa da. Lau bat txapel, dozena bat kopa eta beste hainbeste domina izango ditu etxean. “Jubeniletan Gipuzkoako txapelketa irabazi genuen”, gaineratu du.

Pilotatik bizitzea oso zaila ikusten du lazkaotarrak. “Nik ez daukat pilotari profesional izateko asmorik; etortzen baldin bada ondo, baina ikasketak bu-

katzeko asmoa daukat. Pilota, zaletasuna da”.

Enpresaritzako ikasketak direla eta, entrenatzeko tarte bilatzea gero eta zailagoa badu ere, gustuko lekuan aldaparik ez dela izaten garbi du Barrerosek. “Askotan goizeko 7etan joaten naiz, akademia daukadalako, arratsaldean eskola... Goizean goizetik motxilan eramaten ditut takoak eta pilotarako behar dudana. Iluntzeko 8,15 aldera Lazkaora iristen naiz eta autobusean takoak jartzen etortzen naiz. Kirodegira

joan, aldatu eta entrenatzera joaten naiz”.

Telebistan ikusten duena errepikatzen saiatzen dira entrenamenduetan. “Irujok igandean egiten duen zerbait egiten saiatzen gara astelehenean, baina zaila izaten da. Horien indarra ezin da gurearekin konparatu. Baina horiek pilotan jokatzeke bakarrik daude, eta guk gauza gehiago ditugu”.

Eskuetatik orain arte ondo ibili da eta zortea izan du, “baina aurten ez nabil hain ondo. Takoak molda-

“Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak”



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44



mazda

Bikar, S. A.

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma
BEASAIN



tzen ditut horretara”, aitortu digu.

Azkenaldian epaile lanean ere ari da Jon Barreros. “Goierri aldean epaile gutxi dagoenez, epaile izateko aukera eman ziguten; liburu bat irakurri, pare bat saiota-
ra joan eta eta Lazkao eta Ataunen ibiltzen gara. Ez gara epaile-epaileak: epaile-rik etortzen ez denean, guk betetzen dugu epaile lana. Umeen epaile izatea gustatzen zait, baina handienena ez. Umeekin ondo moldatzen naiz”, azpimarratu du lazkaotarrak.

Pilotaren gaiarekin amaitzeko, Martinez de Irujo izatea amesten ote duen galdetu diogu. “Bai, asko gustatuko litzaidake, baina oso zaila ikusten dut hori”.

Gitarra lagun

Pilotaz gain, beste zaletasun bat ere badu Barreros: gitarra jo, abestu, abestiak sortu, hitzak idatzi... dene-
tik egiten du. Bi zaletasunetan eskuak oso garrantzitsuak dira eta momentuz behintzat, ondo moldatzen da. “Askotan egin didaten galdera da hori. Ni txikitatik ohituta nago pilotarekin eta gitarrarekin. Lesionatuz gero, gitarra jotzerik ez dut izaten. Baina gitarra jo gabe ere ezin dut bizi. Egunero jotzen dut”.

Orain arte gitarra españolarekin aritu izan da baina orain akustikoarekin ari da. “Askoz ere gusturago nabil”, aitortu du.

Abestiak sortzeko prozesuan, momentuko inspirazioa aprobetxatzea omen da gakoa. “Momentuaren arabera izaten da. Zerbait burura etortzen zaidanean, paper bat hartu eta bertan



Duela lau urte ateratako argazkia, Ataunen jokatu zen Gipuzkoako kantu txapelketan parte hartu zuen lazkaotarrak. “Kantu txapelketak ondo etortzen dira, lagundu egiten dute. Nik orain arte ez dut zortzerik eduki baina hor dago Beasaingo Sukan taldea”.

egiten dut, eta gero, ordenadorera pasatu. Batzutan telefono mugikorrean ere grabatzen dut, ez ahazteko. Dena bukatuta daukadanean, gitarra jo eta abestu egiten dut, nola gelditzen den ikusteko”.

Hitzak ere berak idazten ditu. “Poesia egitea beti gustatu izan zait eta beti ondo moldatu izan naiz”.

Doinua eta hitzak uztar-

tuz, zer nolako emaitza ateratzen den galdetu diogu. “Normalean abesti “erromantikilloak” izaten dira, nire lagunek esaten duten bezala. Nahi gabe ateratzen zaizkit hitzak”.

Bakarka gusturago aritzen da Jon Barreros. “15-16 urterekin, rock taldearen ideia izan nuen buruan. Elekrika ere erosi nuen, baina amaren haserreak en-

tzun behar izan nituen. Baina orain akustikarekin gustura nabil. Musika lasaigoa gustatzen zait. Entzun, denetik egiten dut baina nik bakarlarik bezala, gehiago ikusten dut nire burua”.

Dena den, taldean jotzearen esperientzia bizi izan zuen 2007. urtean. “Drindotseko Jonek Gabonetako kantu txapelketa entzun zuen, guk irabazi genuen, eta beraiekin abestea gustatuko ote litzaidakeen komentatu zidan. Baietz esan nion. Ni ahaztuta nengoen eta halako batean telefonoz deitu zidan. Bi kontzertutan aritu nintzen, oso gustura aritu nintzen. Beste esperientzia bat izan zen. Taldeekin sekula ibili gabe nengoen”.

Gitarrak lasaitu eta motibatu egiten
nau, baina kirola ere behar da burua
lasaitzeko, askatzeko...



ARANDIA
Garaia

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Iurre Auzoa

OLABERRIA

☎ 943 88 09 47



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGA

KOL. Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)





Di-da

Pilotari bat:

Martinez de Irujo.

Pilotaz gain, beste kirol bat:

Kirol gehienak gustatzen zaizkit.

Zaletasun bat:

Gitarra.

Gitarraz gain beste musika tresna bat:

Bateria gustatzen zait, baina lehen gehiago.

Musika talde bat:

Denetik gustatzen zait. Adibidez, Mikel Urdangarin, Ken Zazpi, Berri Txarrak...

Abesti bat:

Hainbeste gustatzen zaizkit... Latzen taldearen 'Laztana'.

Liburu bat:

Irakurtzea ez zait asko gustatzen baina filosofia adibidez, bai, asko gustatzen zait. Irakurriko banu, filosofia gaia aukeratuko nuke.

Aktore bat:

'Los Serrano' telesaileko Santiago, grazia egiten dit.

Janari bat:

Makarroiak.

Edari bat:

Parrandarako kuba Martini; bestela, ura.

Amets bat:

Ikasketak bukatu eta lan on bat aurkitzea.

Urte Berriari zer eskatzen diozu?

Orain arte bezala jarraitzea, arlo guztietan.

Lazkaoko Drindots taldearen errepertorioa ikasi eta Bizkaia eta Nafarroa aldean bi kontzertu eskaini zituzten. "Bai, partiturak eta cd-a eman zizkidaten eta horrela ikasi nuen. Nik kantatu bakarrik egin nuen", adierazi du.

Drindots bezalako talde batekin jotzea pozgarria izan zen lazkaotarrantzat.

"Izugarria izan zen. Ez nuen inondik inora espero gainera. Drindotsek fama handia dauka. Uhartan adibidez, karpa handi bat, dena beteta zegoen, gazte jendea... ilusioa egiten dizu".

Gitarrarekin jarraitzeko asmoa dauka lazkaotarrak. "Egunen batean cd-ren bat aterako dudala pentsatzen dut. Gustura nabil gainera.

Iazko urtea nahiko ondo atera zitzaidan".

Aitak ere esana dio, 10 bat abesti egindakoan, cd-ren bat grabatuko dutela.

Aukeraketa zaila

Elkarriketa amaitzeko, egunen batean pilotaren eta gitarraren artean aukeratu behar izango balu zein aukeratu ote lukeen galdetu

diogu. "Oso-oso zaila litza-teke bietariko bat aukeratzeta. Ez nuke jakingo zein aukeratu. Zazpi urtetatik bi gauzak nire bizitzan daude eta ez nuke jakingo zein aukeratu. Pilota gabe ez, eta gitarrarik gabe ere ez... Gitarrak lasaitu eta motibatu egiten nau, baina kirola ere behar da burua lasaitzeko, askatzeko..."



**Garbiketa
Zerbitzu
Integrala**

Enpresen mantentzea

Tel./Faxa: 943 188 194 Mug.: 696 999 117
Kale Nagusia, 25, 1. esk. IDIAZABAL

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

**Garai berrietarako
ideia berriak**

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

LANA

eskaerak

Lazkaoko Herrikoan zerbitzaria behar da. 606435022.

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, Legazpin. 652776848.

Zeraingo Olatza sagardotegian zerbitzariak behar dira. 943801757.

Pertsona bat behar da larunbat gauetan ontziak garbitzeko, sagardotegi batean. 615700408.

Esperientziadun zerbitzari euskalduna behar da, autoarekin. 943880044.

Tolosako sagardotegi batean zerbitzaritzarako eta sukalderako langileak behar dira. 660654317. Jon.

Akademiak irakasleak behar ditu: marrazketa teknikoak, fisika eta kimika emateko. Bidali kurrikuluma honako helbidera: 61 posta kutxa. 20240 Ordizia.

Beasaingo Arrano tabernak zerbitzaria behar du. 943887447.

Lazkaoko taberna baterako zerbitzaria behar da. 943888308.

Euskaraz dakien langilea behar da sagardotegi batean lan egiteko. 607365743.

Beasaingo denda bat eramateko pertsona bat behar da. Deitu 8:00etatik 14:00etara. 943885500.

Ordiziako Herrikoako zerbitzaria behar da. 943887598.

Ordizian neska bat behar da, etxeko lanak egin eta noiz-behinka haurrak zaintzeko, orduka. 943887679.

Pertsona bat behar da sagardotegi batean mahaiak zerbitzatzeko. Urte osoan larunbat gauetan edo igande eguerdi batzuetan. 618930021.

eskaintzak

Etxeko lanak egiteko edo adinduak eta umeak zaintzeko esperientziadun emakumea eskaintzen da. Egunez edo gauez lan egiteko. 699146767.

Neska lan bila dabil, orduka. Etxean bertan biziz ere bai. 669900779.

Ordizian bizi den emakumeak etxeko lanak egiten, adinduak edo umeak zaintzen... lan egingo luke. 630839155.

Neska arduratsua, orduka, atariak edo tabernak garbitzen edo astebukaeretan tabernak garbitzen lan egiteko prest. 651720136 - 943088208.

GALDUTAKOAK

Ordizian aurreko larunbat gauean (abenduak 8) goretex txamarra txuri-beltza erori zitzaidan balkoitik, Santa Maria eta Goitia kaleen artean (Martinez taberna parean) aurkitu baduzu deitu mesedez: 690260323.

IBILGAILUAK

Opel Frontera 2.3 TDi autoa salgai. Egoera onean. 608243939.

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

salgai

Lazkao. 90 m²ko etxebizitza salgai. 689 99 76 74.

Beasain. Etxe baxua salgai. 33.000 euro. 686062963.

Beasain. 60 m²ko etxebizitza salgai. Dena berritua. Aukera ona. 619441919.

Beasain. Duplex ederra salgai. Bista paregabeak. Eraikuntza berria. INMO F3. 943164936 - 629417171.

Beasain. Igartzako etxebizitza gunean, 112 m²ko etxebizitza salgai: 4 logela, 2 bainu eta 14 m²ko terraza. Bi autorentzako garajea. 635746967.

Beasain. Eraikuntza berriko 2 logelako pisua salgai. Erdigunean. Garajearekin. INMO F3. 943164936 - 629417171.

Beasain. 4 logelako etxebizitza salgai oztopo arkitektonikorik gabe. Erdigunean. INMO F3. 943164936 - 629417171.

BESTELAKOAK

erosi

'Automobil' aldizkariko 5, 6, 36, 37, 38 zenbakiak erosiko nituzke. 943027280.

salgai

Haritzeko gela salgai. Ohea, armairua, 2 mahaitxo, komoda. 629767329.

'Zerossette' trikitixa salgai. Gutxi erabilia. 657719725.

Intxaurrak salgai Ataungo baserri batean. 2,60 euro kiloak. Gutxieneko erosketa 5 kg. 943180240. (9:00etatik 10:00etara eta 13:00etatik 15:00etara deitu).

Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615755762.

kontsultak

Tarot kontsultak. 943766214.

NEGOZIOAK

errentan eman

Kafetegia alokatzen da Beasainen. Lanean hasteko prest. 666774578.

ANIMALIAK

opari

Urtebeteko zakur eme zoragarria oparitzen da. Etxean edukitzeko. 695703471.

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...
era guztietako ospakizunak

☎ 943 88 00 02
OLABERRIA

Ordizia-Beasain

Antzerki garaia 2008

Hamahirugarren urtez jarraian, aurten ere 'Antzerki Garaia' egitaraua izango da Beasainen eta Ordizian, bertako Udaletako Kultura Sailek antolatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadiko Antzerki Sarearen lankidetzarekin. Antolatzaileen esanetan, "helburuak aurreko ekitaldietako berberak dira: batetik, antzerki emanaldietara joateko ohitura galdu duen publikoa berreskuratzea; bestetik, publiko berria erakartzea, gazteak batik bat. Lan horri ekiteko ezinbestekoa gertatu da borondateak batzea eta ahaleginak koordinatzea. Hemen aurkezten den egitaraua horien ondorio da".

Taldeak eta obrak hautatzeko irizpidea kalitatea izan da eta kontuan hartu dira muntaia, lengoaiari emandako trataera, hizkuntza, konpainiaren eskarmentua eta profesionaltasuna eta obren arrakasta. Izan ere, egitaraua arrakastatsua gertatzeko gorabehera horiek guztiak hartu behar dira kontuan.

Ohi bezala, 8 emanaldi izango dira urtarriletik apirila: 4 Beasaingo Usurbe Antzokian eta beste 4 Ordiziako Herri Antzokian. Emanaldi guztiak gaueko 22:15ean izango dira eta sarrerak 10 euroko prezioa izango dute. Zortzi emanalditarako abonua ere lor daiteke, 60 eurotan. Abonuan 8 emanaldi sartzen dira. Abonuak bi udaletxeetako Kultura Sailetan, antzokieta-kotakiletan eta Ordiziako Barrenan lor daitezke.

Urtarrilak 11:

Beasainen, La tentacion-Arriabala taldearen 'La familia del chivo Froilan'. Gazteleraz.

Otsailak 1:

Ordizian, Kanpingags taldearen 'Hor al zaude?'. Euskaraz.

Otsailak 8:

Beasainen, Pok produkzioak '¿Recuerdas, Abuela?'. Gazteleraz.

Otsailak 22:

Ordizian, Ambigú taldearen 'Busco novio formal... que marido ya tuve'. Gazteleraz.

Otsailak 29:

Beasainen, Glu Glu produkzioak-en 'Ezker-Eskuma'. Euskaraz.

Martxoak 7:

Ordizian, Ados teatroa taldearen 'El jefe de todo esto'. Gazteleraz.

Apirilak 4:

Beasainen, Txalo taldearen 'Gronholm metodoa'. Euskaraz.

Apirilak 11:

Ordizian, Txalo taldearen 'Sommer jaunaren historia'. Euskaraz.

Beasain

Neguko VI. bertsopaper lehiaketa

Beasaingo Arrano Kultur Elkarteak, VI. bertsopaper lehiaketako oinarriak kaleratu ditu dagoeneko. Bi adin taldeetan banatuko da lehiaketa.

A taldea: 2008an 18 urte baino gutxiago beteko dituztenak. Gutxienez 5 eta gehienez 8 bertso jarri behar dituzte. Irabazlearentzat, 370 euroko saria egongo da.

B taldea: 2008an 18 urte edo gehiago beteko dituztenak. Gutxienez 8 bertso eta gehienez 12 bertso idatzi beharko dira. Irabazleak, 680 euroko saria jasoko du. Goierriko onenak ere saria izango du: 220 euro.

Bi mailetan ere, gaia librea izango da; doinua ere bai. Dena den, ezinbestekoa da sortaren doinuaren ize-na argi adieraztea.

Lanak aurkezteko epea, otsailaren 23an bukatuko da. Beasaingo Kale Nagusiko 12. zenbakira edo negukolehiaketa@gmail.com posta elektronikora bidal daitezke lanak.



Lazkao

Astotxo eguna

Urtarrilak 13, igandea: Astotxo eguna:

10:00etan: Asto Diana.

11:00etan: Meza Nagusia, Lazkao abesbatzaren partaidetzarekin.

12:00etan: IX. Asto erakusketa eta lehiaketa. Gurdi ibiltariak. Euskadi Plazan.

12:00etan: Egiptorako ihesaren kale antzezpena: 1652an sortutako festari ematen zaio bizia, Lazkao Txiki plazan eta inguruetan.

Erakusketa:

● Urtarrilaren 6tik 13ra, 'Euskal musika tresnak eta astoen argazki zaharrak' erakusketa, Kultur Etxeko Erakusketa gelan.

Idiazabal

II. Pop-rock txapelketa

San Blasei, II. pop-rock txapelketak emango die hasiera, urtarrilaren 25ean, Igarondo pilotalekuko tabernan.

Euskal Herri osoko, eta diskorik kaleratu ez duen, edozein taldek parte hartu ahal izango dute (2007ko irabazleak izan ezik). Hori bai, Idiazabalgo eta Goierriko taldeek izango dute lehentasuna. Urtarrilaren 11 baino lehen eman beharko da izena eta grabazio bat bidali beharko da posta elektronikoz ala posta arruntez. Bertan abesti bakar bat aurkeztea nahikoa izango da eta zuzeneko grabazioak, maketak... ontzat hartuko dira.

Hamar talde baino gehiago aurkezten baldin badira epaimahaiak aldeztu aurretiko aukeraketa egingo du.

Bi sari izango dira: Epaimahaiak aukeratutako taldeak diska bat grabatzeko aukera izango du; entzuleek aukeratutako taldeak 2009ko Sanblas jaietan kontzertua eskainiko du Idiazabalen. Saritua suertatzen den taldeak, abestiren bat SGAEn erregistratua badu, bere gain hartuko ditu horrek eragingo dituen gastuak.

Izena emateko hiru bide jarri ditu Idiazabalgo Udala: telefonoa: 943187100 (goizetan); helbide elektroniko: kultura@idiazabal.info; eta helbidea: Idiazabalgo Udala Plaza Nagusia 1, 20213 Idiazabal (Gipuzkoa).

Beasain

Goienizen ziklo berria

Urtarrilaren 10ean, ostegunean, hasiko da Goieniz zine klubaren XXVII. zikloa. "Kalitate eta gaurkotasun handiko" 8 filmek osatuko dute zikloa. Tartean, zine klubeko ikusleen iritzia kasu eginez aukeratutako Film kuttuna eskainiko da urtarrilaren 31n: Juan Taratutoren 'No sos vos, soy yo'.

Ohi bezala, Beasaingo Usurbe Antzokian izango dira emanaldiak, gaueko 21:00etan hasita. Sarrera 3,5 euro kostako da. Ziklo osorako abonua 15 eurotan eros daiteke.

Jarraian duzue Goienizek prestatu duen eskaintza:
Urtarrilak 10: 'Lucio'. Jose Mari Goenaga eta Aitor Arregi.

Urtarrilak 17: 'Cuando naces, ya no puedes esconderte'. Marco Tullio Giordana.

Urtarrilak 31: 'No sos vos, soy yo'. Juan Taratuto.

Otsailak 7: 'Persepolis'. Marjane Strapi eta Vicennt Prannaud.

Otsailak 14: 'Los climas'. Nuri Bilge Ceylan.

Otsailak 28: 'Hotel Tivoli'. Anton Reixa.

Martxoak 6: 'La boda de Tuya'. Wang Quanan.

Martxoak 12: 'Redaced'. Brian de Palma.

Goierri + hitza

GOIERRIKO

Abantailaz betetako elkarlana

Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐ Goierri 25 euro Egin ☒ bat aukeratutako kaxan ☐ Goierri hitza 62,5 euro

☐ Goierri + hitza 67,5 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakia:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urtalde plaza 7 behe, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: 902 82 02 01



Gabiriako eskolumeak 1933-34an

Ander Iurritak jaso, izen guztiak lortu eta utzi digu argazki hau.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Eugenio Telleria (Madariaga Goena), Dionisio Gabilondo (Elizalde), Nikolas Alustiza (Oñatibi Haundi), Joxe Legorburu (Azkartza), Nikolas Etxeberria, (Urkiztegi), Patxi Lasa (Zantegi), Pio Apaolaza (Olalkiaga), Joxe Mari Pikasari (Baztarrika), Andres Apaolaza (Olalkiaga) eta Juan Mujika (Maisua, izatez Albizturgoa).

Bigarren ilaran: Santos Txintxurreta (Txoko), Joxe Antonio Enatarreaga (Izar Goena), Fortunato Ariztimuño (Izar Barrena), Inazio Jauregi (Agerretxemendi), Pedro Garziandia (Sekretario Enea), Domingo Peñagarikano (Gabirizar), Faustino Goitia (Gabirizar), Inazio Salsamendi (Astiasaran) eta Joxe Antonio Apaolaza (Olakiaga).

Hirugarren ilaran: Paulo Lasa Izuzkiza (Etxeberri), Ramon Alustiza (Landeta), Frantzisko Mari Gabilondo (Elizalde), Migel Garziandia (Sekretario Enea), Joxe Murua (Izar Haundi), Juan Murua (Izar Haundi), Felix Zabaleta (Jauregi) eta Joxe Pikasari (Baztarrika).

Lurrean eserita: Juanito Urkiola (Aunditegi), Joxe Mari Azarola (Arane Haundi), Joxe Lasa Izuzkiza (Etxeberri) eta Joxe Aramendi (Noare Etxeberri).

**ONE MENDIZABAL
ILEAPAINDEGIA**

Emakumezkoen nahiz
gizonezkoen ileapaindegia
Depilazio laser medikua
Zutikako solariuma

943 18 04 92
Helbarrena, 24
ATAUN

Astelohen goizetan zabalik

LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO
Tel.: 943 164 846 - 627 505 687

- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Informatika-gaien salmenta eta konponketa
- Informatika hornikuntzak, sareak
- Telekomunikabideak



BARANDIARAN
zeramikak

ERREFORMAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJAK

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKYNTZA



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN

suquia

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA


e-posta: suquia@suquiahogar.com

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

altzariak - elektragailuak



Gure izatea kalitatea eta zerbitzua

Etxean bertan martxan jartzea dohainik